

1. XEDEA

AZTI Fundazioak iragartzen du lehiaketa publiko bidezko lizitazio prozedura bat ireki duela **"Oria ibaiaren arroan, aingiraren ibai-laginketa" egiteko**.

Betebeharreko lana Europar Batasunaren datuak biltzeko urte anitzeko programaren barruan garatzen da. Programa honek bildu beharreko datuak, itsas arro bakoitzean nahitaez egin beharreko azterlanen zerrenda eta datuak biltzeko atalaseak ezartzen ditu. Datuak biltzeko esparruaren erregelamenduari jarraiki, honakoa adierazten du:

Batzordearen 2021eko apirilaren 27ko 2021/1167 Erabaki Delegatua (EB); honen bidez, Europar Batasunaren urte anitzeko programa ezarri da arrantza- sektoreetan eta akuikultura-sektoreetan datu biologikoak, ingurumenekoak, teknikoak eta sozioekonomikoak biltzeko eta kudeatzeko, 2022tik aurrera [\[hemen\]](#):

- aingirei dagokienez, datuak edozein itsas habitatetan edo barruko uretan bilduko dira, gutxienez aingiraren kudeaketa-unitate bakoitzeko ur-masa batean, honako hauei dagokienez: i) errekluten ugaritasuna, ii) aingira horia populazio finkoaren ugaritasuna, iii) migrazio-fasean dauden zilar-koloreko aingiren sexuen kopurua, pisua eta proportzioa.
- eta izokin atlantikoaren kasuan, berriz, hainbat datu bilduko dira, besteak beste, *esguinen* eta *pintoen* ugaritasunari eta ibaieran goranzko migrazioa egiten duten aleen kopuruari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko aingira Kudeatzeko Unitatearen kasuan, Oria ibaiaren arroa aukeratu da Europako araudia betetzeko. Horrela, baldintza-agiri honen xedea ibai-aholkularitzako enpresa bat kontratatzea da, ii eta iii puntuak betetzeko. Zehazki:

- Arrantza elektrikoaren laginketak Oriako arroko 12 estaziotan.
- Aingiraren ugalketa-potentzialaren estimazioa puntu bakoitzean.
- Aingiraren guztizko populazio-estimazioa eta estazio bakoitzeko neurketa-talde nagusien estimazioa barne hartzen dituen memoria egitea, bai eta estazio bakoitzean eta arroko tornuan ugaltzeko potentziala kalkulatzeko ere, plateamendu-indizean oinarrituta.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

2. ZERBITZUAREN IRAUPENA

Proiektua **gehienez ere 20 asteko epean** egingo da, kontratua sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.

3. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Lizitazio honetarako onartuko den gehieneko eskaintza ekonomikoa da **hamaika mila euro (11.000,00€)**, zergak barne hartu gabe.

Fakturazioa zerbitzua amaitzean egingo da, eta faktura jaulkitze-dataren 60 egunetan ordainduko da.

4. PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikoa	%50
Doitasun teknikoa	%30
Hobekuntzak	%10
Entregatzeko epea	%5
Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Politikak	%5

5. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatuzaileek **Alaitz Lizaso**ri aurkeztu ahal izango dizkiote proposamenak alizaso@azti.es helbide elektronikoan eta AZTIren edozein zentrotan, iragarki hau AZTI Fundazioaren webgunean argitaratzen denetik **2023ko abuztuaren 18ko 12:00ak arte**.

Lizitatuzaileek helbide honetara jo ahal izango dute **informazio tekniko** gehigarria jasotzeko:



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

AZTI

Norentzat: Estibaliz Díaz Silvestre

Tel. 34 667 174 412

Mail: ediaz@azti.es

6. ESLEIPENA

Eskaintzak aurkezteko adierazitako egunean jaso ondoren, 15 laneguneko epean, AZTI Fundazioaren webgunean argitaratuko da lizitazioaren emaitza.

7. KONTRATAZIORAKO BALDINTZAK

- Hautatutako erakundea, AZTIrekiko zerbitzuak dirauen bitartean, lan, Gizarte Segurantza eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, dagokionean, enpresa jarduerak koordinatu beharko ditu, 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, ezarritako prozedura eta espezifikazioei jarraituz (hemen eskuratu daitezke <http://www.azti.es/es/coordinacion-de-actividades-empresariales/>)
- Hautatutako erakundeak, beste edozein agiri alde batera utzita, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du kontratua formalizatu aurretik.
- Hautatutako erakundeak kontratua formalizatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du gehienez 20 eguneko epean, esleipena egiten denetik zenbatzen hasita. Edozein gai gehigarri kontsultatu ahal izango da www.azti.es helbidean argitaratutako Kontratazioaren barne Araudian.
- Baldintza teknikoez eta administratiboez gain, AZTIk positibo baloratuko ditu Kalitate, Segurtasun eta Osasun, Ingurumen, Mugikortasun Jasangarri eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikei eusten dietela frogatzen duten hornitzaileei.
Hornitzaileak politika horiek egiaztatzeko aukera ematen duten dokumentuak edo erregistroak sartuko ditu bere proposamenean (kalitate ziurtagiriak, ingurumenekoak, gizarte erantzukizuneko gaitako jardueri buruzko dokumentazioa, etab.).



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

8. DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA

Arduraduna: Izena: AZTI FUNDAZIOA - IFK: G48939508 Posta helbidea: TXATXARRAMENDI UGARTEA Z.G. SUKARRIETA (BIZKAIA) Telefonoa: 946574000 Helbide elektronikoa: lopd@azti.es.

"AZTI FUNDAZIOAn ematen diguzun informazioa tratatzen dugu, zure eskaera egiteko, zerbitzuak fakturatzeko eta merkataritza harremanak mantentzeko. Zure datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa merkataritza harremanak izateko eta zerbitzuak emateko dugun interes legitimoa da, eta behar-beharrezkoak dira helburu horretarako. Emandako datuak gorde egingo dira merkataritza harremanak dirauen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan, eta, harremana amaitu ondoren, erantzukizunak sor daitezkeen neurrian. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharren bat dagoenean izan ezik, ezta zerbitzu tekniko eta informatikoen eta auditoretzaren hornitzaileei ere. Halaber, ez du inola ere zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egingo. Eskubidea duzu AZTI FUNDAZIOAn zure datu pertsonalak tratatzen ari garen jakiteko; ondorioz, eskubidea duzu zure datu pertsonaletan sartzeko, datu okerrak zuzentzeko edo ezabatzen eskatzeko, datuak jada beharrezkoak ez direnean, baita ere aurkaratzeko, mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea ere, datuen babesari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutako terminoetan, goian adierazitako helbidera idatziz jakinaraziz. Halaber, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute kontrolerako agintaritza eskumendunaren aurrean.

9. BALDINTZA TEKNIKOAK

- ✓ Ibai-ingurunearen ezagutza zabala, bai faktore biotikoena, bai abiotikoena.
- ✓ Lanean esperientzia izatea; zehazki, azken 5 urteetan arrantza elektrikoaren laginketak egiten.
- ✓ Gutxienez 4 urteko esperientzia aingiraren ibai-laginketetan, ugaltzeko ahalmena zehazteko parametroak barne.
- ✓ Arrain elektrikoak egiteko materiala edukitzea.
- ✓ Eguneko joan-etorrietarako prestasuna.
- ✓ B1 gidabaimena edo goragokoa.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Baloratuko da:

- ❖ Ibai-ingurunea eta, zehazki, Oria ibaiaren artoa ezagutzea.
- ❖ Ikertzaile-gaitasuna
- ❖ Literaturan erabiltzen diren termino zientifikoak ezagutzea.
- ❖ Informazio geografikoko sistemak ezagutzea.
- ❖ Ofimatika erabiltzaile-mailan.
- ❖ Euskaraz jakitea.
- ❖ Talde-lanerako gaitasuna.
- ❖ Sormena.
- ❖ Zehaztasunez entzuteko eta komunikatzeko gaitasuna.